

zerbikas<sup>en</sup>  
gidak  
6

ikasketa eta  
zerbitzu solidarioa:  
hezkuntzako  
laguntza

*\_ Rafael Mendia*





# aurkibidea

1. Ikasketa eta zerbitzu solidarioa hezkuntzako proposamena da	4
2. Heztea laguntzea da	6
3. Hezkuntzako laguntzaren esparrua	8
4. Hezkuntzako laguntzaren estiloa	10
5. Praktika egiteko gakoak	12
6. Prozesuko zereginak	16
7. Laguntzailea	20
8. Hezkuntzako laguntza eta gazteen protagonismoa	22
9. Baliabideak	24





Esku artean duzun gida honen bidez, jarraibideak eskaini nahi dizkizugu, hezkuntzako laguntza errazteko. Izan ere, oinarrizko alderdia da pertsonak eta taldeak hazteko eta garatzeko prozesuetan.

Proiektuen metodologia baten bidez, **IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOAK** ekintza-hausnarketa egiteko prozesuak garatu nahi ditu, jakintzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak eraiki eta sendotu ahal izateko; eta, horretarako, elkartasunezko sareak josi nahi ditu, proiektu horietako protagonista diren lagunen eta gizarteko hainbat eragileren artean.


Prozesu horretan, neska-mutilen, nerabeen edo gazteen taldeek har dezakete parte. Hori gertatzen denean, helduak agertzen dira beti, eta egiten duten lana ez da informazioa ematera edo zaintzera mugatzen, hezkuntzako laguntza ere ematen baitute.

Jarraibideak osatzeko, metodologia honi jarraiki Euskal Autonomia Erkidegoan egin diren esperientzia paradigmatico batzuk zehaztuko ditugu. Adibide horiek argitalpen honen hainbat ataletan aurkituko dituzu bilduta, "Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioarako jardunbide egokiak" epigrafearen azpian

# 1 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA HEZKUNTZAKO PROPOSAMENA DA

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuetan, neska-mutilek inguruan sumatzen dituzten benetako beharri-zanak hobetzen dituzten bitartean ikasten dute, hobekuntza horrekin konprometitzen baitira, eta jakintzak, trebetasun psikosozialak, jarrerak eta balioak erabiltzen dituen proiektu solidario bat garatzen baitute.

Esperientzia horietan, ikasketen protagonista bilakatu dira; eta garatzen dituzten proiektuak, pizgarriak



eta kitzikagarriak izateaz gain, erronka bat dira haien-tzat, zeregin eraginkorra bete behar baitute, hala egin beharreko ekintza aukeratzean, nola ekintza planifikatzeko eta garatzeko prozesu osoan.

Hezkuntzako ikuspegi horrek ikastera bultzatzen ditu haurrak eta gazteak, eta aukera ematen die haien interesa pizten duten, haien bizitzarako garrantzitsuak diren eta komunitatearekin lotzeko baliagarriak diren gaiak hautatzeko, hobetzeko konpromiso soziala garatuz. Hala, bada, batera jartzen dituzte beren jakintzak eta kide izateko duten ideia, eta trebetasun psikosozialak lantzen dituzte –hala nola, sormena edo erabakiak hartzea–, beren inguruneko era askotako alderdiak hobetuko dituzten molde irudimentsuak eta berritzaileak garatzeko.

Hezkuntzako laguntzan aritzen diren horiek arreta handiz planifikatu beharko dute zein izango den ikasketaren helburua, eta, ildo horretan, proiektu honen garapena baliatuko dute eta proiektuaren mugarri guztiak ebaluatuko dituzte. Adibidez:

- Curriculumeko gaien edukiak.
- Oinarrizko gaitasunak.
- Trebetasun psikosozialak.
- Gizartean eta lanean txertatzeko jarrerak.
- Balioak, etab.

## “SAREKO ARTZAIAK” - CPEIPS UZTURPE IKASTOLA HLBHIP (Ibarra-Gipuzkoa)

DBHko 3. mailako ikasleek haien gaitasun digitala garatzeko baliagarriak diren prestakuntzako ekintzak antolatzen dituzte, Lehen Hezkuntzako ikasleek eta haien senideek sarea era egokian erabil dezaten lortzeko.


Proiektuan, hainbat bilera egiten dituzte, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleei sare sozialetan erabilera egokiaren berri emateko. Gero, gizarte-etxean ere egiten dute jarduera, senideei eta, oro har, herriko biztanleei zuzenduta.

Horretarako, egin beharreko jarduerak beren artean banatzen dituzte, eta lanen ardura hartzen duten beren gain: eskolak antolatzea eta garatzea, zabalkunde-lanaz arduratzea, lokala erreserbatzea, etab.

Ikasketa horiek lotura dute ahozko eta idatzizko adierazpena garatzearekin, elkarlanaren bidez proiektu bat antolatu eta betetzearekin, eta Internet eta sare sozialak modu sakonean ezagutzearekin.

Proiektuak oso balorazio onak izan ditu, eta bereziki nabarmendu da taldearen kohesioa eta parte hartu duten kideen autoestimua hobera egin duela.

Hezkuntzako laguntzan era berean hartzen dute parte irakasle tutoreek nola familiek; eta, horrenbestez, informazioa eta lan egiteko tresnak eskaintzen dituzte neska-mutilek prozesuan jardun eta prozesua arautu dezaten, eta laguntza ematen dute ekimena garatu bitartean azal daitezkeen gatazka txikiak konpontzeko.



## 2 HEZTEA LAGUNTZEA DA

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu bat abian jartzen denean, pertsona heldu bat edo batzuk egoten dira gazteen, nerabeen edo neska-mutilen taldearen ondoan, eta laguntza ematen diete hezkuntzako prozesu horretan. Pertsona heldu horiek, normalean, irakasleak, boluntarioak, hezitzaileak edota senideak izaten dira; eta esperientziarekin konprometitzen dira, eta denbora eskaini eta ahalegina egiten dute zeregin horretan. "Heztea", berez, "laguntzea" da, hori kontzeptuaren sorburuan baitago.

Laguntzea, berriz, zera da: norbaitengana biltzea, bera doan tokira batera joateko. "Norbaitengana bildu, doan tokira harekin batera joateko" eta "Partekatzea. Parte hartzea. Beste batek duen sentimendu batean parte hartzea".

Era berean, laguntzea zera da: norbaiten ondoan jartzea –pertsona edo talde baten ondoan–, bere beharrietatik abiatuta hazkunde pertsonal eta soziala lortzeko ibilbide bat egin dezan. Laguntzea da pertsona bakoitza eta ereduako taldea akuilatzea, nork bere proiektua eraiki dezan.

*LAGUNTZAILEA hezitzaile gisa, edo HEZITZAILEA laguntzaile gisa, pertsona heldua da. Bere gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak baliatuz, ikasleen ondoan egoteko zeregina betetzen du, esperientzia baliadun bat eraikitzeko prozesuan, haiengandik hurbil egonik, kritika eraikitzailea eginez, eta bere ibilbide eta bizipen pertsonalak eta adonezko hitzak eta enpatia eskainiz.*

Prozesuan barrena, harremanaren kalitatearen bidez hezten da; partekatzen den proiektuarekiko interesa, gogo bizia eta motibazioa transmititzen dira; Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko esperientzia sortzen parte hartzen da; eta elkarrekin bizi eta harremanetan egoten da begirunez eta askatasunez betetako giro batean.



## “BELAUNALDIEN ARTEKO SUKALDARITZA”- HLPP- PEÑASCAL S. COOP. (BILBAO-BIZKAIA)

Osasun Zentroak jakinarazi duenez, erretiratuen talde batek zenbait gabezia ditu elikadura aldetik, pertsona horiek janaria prestatzeko ohiturarik eta jakituriarik ez dutelako eta, askotan, bakarrik daudelako edo bere kabuz ezin molda daitekeen pertsona bat dutelako beren ardurapean. Horri erantzuna emateko, sukaldaritzako ikastaroa antolatu da auzoko erretiratuentzat, eta Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programako ikasleak arduratu dira prestakuntza emateaz.

Ikasgelan, dieta osasuntsua izateko oinarriak lantzen dira (menuak, osagaiak eta teknikak), eta bereziki nabarmentzen dira tailerrari dagozkion modulu berezietako gaitasunak, trebetasun sozialak eta kontzientzia soziala.

Era berean, idazkera (adierazpena, idazketa, ortografia eta gramatika) eta Informazio eta Komunikazioko Teknologien erabilera lantzen da.

Esperientzia horren ondorioz, lokarriak sortu ziren auzoko biztanleen eta ikasleen artean. Pertsona horiek lehen ez zuten elkarren berri, eta orain, berriz, elkar agurtzen dute eta hitz egiten dute kaletik ikustean. Irakasle gisa aritu zirenek argi ulertu zuten hirugarren

adina ez dela aldi estatiko bat, eta jendea “ez dela erretxina, adinekoa izateagatik”.

Erretiratuek gazteei eta etorkinei ezartzen zaien etiketa ezkor hori hautsi zuten. “Irakasleak” ohartu ziren eragile egokiak izan ahal direla aldaketa bultzatzeko, eta erantzuna eman ahal dietela beste pertsona batzuen beharrezane, gauzak ondo eginez gero.

Hezkuntzako laguntzarako prozesuan, irakasleen taldeak esperientzia dinamizatu eta proposamena laguntzen du ordutegitik kanpo: astero, informazioa, prozesuak eta antolakuntza berrikusten ditu taldearekin batera, balorazioa egin eta taldea akuilatzen du hurrengo bilerari begira hobetzeko, eta baliabideak eskaintzen ditu prozesuan agertzen diren arazoei konponbidea emateko.

### 3 HEZKUNTZAKO LAGUNTZAREN ESPARRUA

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu batean hezkuntzako laguntza egokia eman ahal izateko, hezkuntzarako giro egokia eduki behar dugu.

Lehenik eta behin, hezkuntzako laguntza emateaz arduratzen diren lagunak ezinbestean fidatu behar dira neska-mutilek beren kabuz pentsatzeko, jokatzeko eta ikasteko dituzten gaitasunekin, eta konponbide irudimentsuak baliatuz arazoei aurre egiteko duten ahalmenekin, betiere, beren adina eta banakako eta taldeko esperientzia kontuan izanik.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuak garatzeko laguntza sustatzen duen hezkuntzako instituzio batek begirunez egiten die harrera pertsona guztiei, eta praktikak eta jarrerak bultzatzen ditu laguntza emateko, elkarrekiko begirunea sustatzeko eta kideen arteko elkarlana lantzeko, berdin dio kideak neska-mutalak edo gizarteko eragileak diren (irakasleak, begiraleak gurasoak...)-, eta bultzada ematen du komunitateko gainerako erakundeak partekatutako proiektuekin konprometitu daitezen. Azken batean, instituzio horrek pertsonen eta kulturen arteko truke

aberasgarriak bultzatzen ditu, onak baitira gainerako pertsonen balioespena handitzeko eta zuzentasuna bultzatzeko.

Neska-mutil, nerabe eta gazteen (edo beste talde batzuen) esku utzi behar dugu esperientzien protagonismoa. Konfiantza hori izatea oinarritzko urratsa izango da, haiei buruzko balorazio ona egiten dela ikus dezaten, gai direla ohar daitezen, eta jakin dezaten zeregin garrantzitsua eta eraldatzailea dutela gizartean.

“Inor ez da “txikiegia”, “pobreegia” edo “bereziegia”, gainerakoei eskaintzeko moduko ezer ez izateko” (María Nieves Tapia).

## “ODOLA EMATEKO BULTZADA”- SAN PELAYO IKASTETXEA. (ERMUA-BIZKAIA)

Proiektuaren bidez, kontzientzia harrarazi nahi da odola emateak duen garrantziaz, eta eraginkortasunez parte hartzera bultzatu nahi da, era horretan, “Odolaren bankua” mantentzen laguntzeko. Aldi berean, eduki akademikoak irakasten dira gai horri lotuta dauden ingurunearen ezagutza-arloari buruz. Horretarako, honako hauek hartzen dute parte: tokiko odol-emaileen elkarteak, osasun-zentroak, ospitaleko odola emateko zerbitzuak eta beren esperientziaren berri ematen duten odol-emaileek.

Ikasketen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

Gaiei lotuta: odolaren eta bere osagaien ezaugarri nagusiak zeintzuk diren jakitea, ingurune horretan hobeto moldatu ahal izateko, eta norberaren osasunaren zaintzari arreta handiagoa emateko.

Gaitasunak garatzeari lotuta: besteak beste, gaitasun soziala garatzea, eta elkartasunezko programetan eraginkortasunez parte hartzea, era horretan, kontzientzia solidarioa eta zibikoa sortzeko; ikasleen autonomia pertsonala piztea, egiten duten proiektuari lotutako hainbat jarduera antolatuz ikastetxe barruan eta kanpoan.

Balioetan oinarritutako hezkuntzari lotuta: odola emateak eta “odol-bankuak” egoteak gizakiaren bizitzari begira duen garrantziaz ohartzea, eta odola emateko dagoen beharra balioestea eta ulertzea, ezinbesteko ekintza altruista horren onurak pertsona guztiek jaso baititzakete.

Ebaluazioa: ikasleei dagokienez, oso emaitza onak izan dituzte eduki akademikoetan, eta familiek ere motibazio eta konpromiso handia erakutsi dute. Gainera, ikasketen arteko harreman ona izatea lortu da.

Hezkuntzako laguntzarako prozesuan, irakasleen taldea bilerak dinamizatzeaz arduratzen da, bultzada ematen du parte-hartze orekatua izan dadin txandei eta denborari begira, eta ondo ziurtatzen du zereginak modu orekatuan banatuko direla. Bestetik, dinamika guztiak bideratzen ditu lortu nahi den helbururantz (ezer indarrez ezarri gabe), eta gogoeta edo ekintzarako ildo berriak sortzeko lagungarriak izan daitezkeen datu berriak ematen ditu.

## 4 HEZKUNTZAKO LAGUNTZAREN ESTILOA

Hezkuntzako laguntzaren "estiloa" aipatzean, jokatzekeo modu berezi bat eman nahi dugu aditzera, gurasokeriatan oinarritutako eskemak gainditzen dituen. Hona hemen zeintzuk diren Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu bateko hezkuntzako laguntzaren estiloaren bereizgarriak:

- Estilo elkarreragilea: Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko metodologia batek eskain ditzakeen hezkuntza-prozesua, umotzea, hazkunde pertsonala eta taldekoa, eta ikaskuntzako hazkundera desberdina izango da, neska-mutilek gainerako pertsonekin dituzten elkarreraginen arabera: besteak beste, adiskideekin, irakasleekin, senideekin eta lagunekin. Hezkuntzako laguntzak lagungarria izan behar du harreman onak sorraraziko dituen giroa lortzeko. Giro eraikitzailea izan dadin, argudioen arabera balioetsi behar dira ekarpenak, ez ekarpenak egiten dituenak duen botere-jarreratik abiatuta.
- Parte hartzeko estiloa: Parte hartzeko guneak finkatu behar dira, taldea eta erkidegoa osatzen duten eta prozesuan esku hartzen duten lagunek hausnar-

keta egin eta iritzia eman ahal izan dezaten, aurrera atera nahi den proiektuari lotutako alderdiei buruz. Horretarako, kontuan hartu behar da ez dagoela bide bakar bat arazoak adierazteko, ulertzeko eta konpontzeko. Parte-hartzea eta elkarreragina bultzatzen dituen estiloa lagungarria izango da egiten ari den lan horri zentzua aurkitzeko, eta, horren ondorioz, atxikimendua eta grina piztuko dira, eta pentsamendua eta ekintza eraiki ahal izango dira, balioespen bera jasotzen duten ekarpenen arteko adostasunaren bidez.

- Estilo eraldatzailea eta solidarioa: Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuen xedeetako bat pertsonen gizartea aldatzeko eta eraldatzeko eragile gisa duten gaitasuna aurkitzea da, metodologia hori lagungarria baita bizipen eta praktika solidariorako, eta elkartasuna oinarritik sustatu eta erkidego osora zabaltzen baitu.
- Ekintza eta hausnarketarako tresnak eskaintzen dituen estiloa: Hezkuntzako laguntzako prozesu honetan, eta Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu bat garatzean, taldeko eta elkarreragineko estrategiak eta dinamikak erabil ditzakegu, giro egokia lortu ahal izateko, protagonismoa alde batera uzteko, eta errealitatea eraldatzeko lagungarria izango den ikasketa sustatzeko: jarduera sozio-dramatikoak, jarduera sortzaileak, elkarlaneko jarduerak, etab.

## “HESIAK MOZTEN DITUZTEN ARTAZIAK”- CIFO-HLPI (SANTURTZI-BIZKAIA)

Santurtziko Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programako gazteek ile-apaindegiko eta estetikako zerbitzuak egiten dizkiete, astero, ahalmen-urritasun psikikoa duten Ranzari Lanerako Zentroko 60 laguni.

Ile-apaindegitzako ikasleek lan hauek egiten dituzte: ilea garbitu, moztu, koloreztatu, orraztu eta manikura egin. Ilea apaintzen ikasten duten bitartean, zerbitzu solidarioa egiten dute komunitatean. Programako arlo guztietan, gaitasun teknikoak, pertsonalak eta sozialak lantzen dira, irakaskuntza teorikoa eta praktikoa proiektu bakarrean bateratzen dira, zerbitzuak emateko kultura eta kide izateko ideia sustatzen dira, eta, balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzeaz gain, bultzada ematen zaie bi taldeen autoestimuari eta gizarteratzeko prozesuari.

Zerbitzuaren kultura indartzeko lan egiten da, eta, ildo horretan, ikasleei bultzada ematen zaie hausnarketa egin dezaten eta bereziki gizarte-egoera ahuleko taldeek dituzten arazoez ardura daitezen, eta, aldi berean, ondo jakin dezaten zeintzuk diren beren eskubide eta betebeharrak sozialak, horrela komunitateko kide izateko sentimendua indartu dadin.

Ebaluazio prozesuaren bidez helburu hauek lortu dira: hausnarketa egin da norberak proiektuarekin duen inplikazioaz eta errendimenduaz; oinarrizko ikaskuntzak, trebetasun psikosozialak, gaitasunak eta kontzeptuak eskuratu dira hausnarketan oinarrituta; jarrerak, balioak, interesak eta motibazioak garatu dira; eta oso balorazio ona egin da norberak izandako esperientziaz eta taldean jokaturako zereginaz.

Hezkuntzako laguntzan, hainbat saio egin ziren ikasleak motibatzeke, era horretan, inplikatu eta taldearen berri gehiago izan zezaten. Horrez gain, astero, zein zerbitzu egin behar den zehazten dute Ranzari ikastetxeko pedagogoarekin batera.

Tailerreko irakasleak zeregin teknikoak gainbegiratzeko dituzte, eta laguntza ematen du giro egokia sortadin. Ranzariko begiraleak beren taldeaz eta dituen beharrez bereziak betetzeaz arduratzen dira. Irakasleak kanpokoak diren ikastetxeko langileak, berriak, agiri grafikoez eta instalazioetan laguntza emateaz arduratzen dira.

## 5 PRAKTIKA EGITEKO GAKOAK

IetaZsko proiektu bateko hezkuntza arloko laguntzak balioetan oinarritutako hezkuntza ahalbidetzen du, bai eta autoestimuaeren garapena, gizarterako eta herritarren arteko gaitasunen bultzada, eta gizarte-izaerako ekintzailtza indartzea ere.

Proposatzen dugun eta hizpide izan dugun estiloak elkarrizketan, eztabaidan eta elkarlanean oinarritutako ekintza, jolas eta jarduerak bultzatzen ditu; era horretan, modu elkartu eta elkarerreragile batez, ekintza planifikatzeko prozesuan, ekintzari lotutako jarduerak garatzen, erabakiak hartzen eta ekintzen ondorioak balioesten parte hartzen duten lagunen gain jartzen da ardura. Estrategia horiek guztiak garrantzizkoak dira balioetan oinarritutako hezkuntzari begira.

Bestalde, proiektuen arabera antolatutako Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa bezalako lan-metodologia batek eskaintzen dituen laguntza eta ñabardura praktikoak egokiak dira oinarritzko gizarte eta ekintzailtzaiko gaitasunak eta proiektu bat planifikatzeko alderdi teknikoak lantzeko. Hezkuntza-arloko instantziak –hala nola, familiak, eskolak edota hezkuntza ez-formaleko instituzioek– beren esperientziako hainbat unetan eta astialdian ibili behar duten bidea da.

*Laburbilduz, hona hemen Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioako Proiektu batek dituen aldiatarako teknikak eta proposamenak:*

### Errealitatearen azterketa

*Izaera soziodramatikoko jarduerak*

- Neska-mutilek hainbat paper jokatzen dituzte, eta beste lagun baten larruan jartzen ikasten dute: rol-jokoa, soziodrama, antzezlan, telebistako gidoi bat egitea, dokudrama bat aurkeztea, etab.

### Ingurunea hobetzeko proposamenak

*Jarduera sortzaileak*

- “Ideia-jasa”, taldeko sorkuntzako ariketak, banakako nahiz taldeko adierazpen artistikoa, musika-la, plastikoa, gorputzekoa, eslogan eta esaldi-sintesien erakusketak eta abar.

### Proiektuak eta esperientziak eraikitzea

*Esperientziak eraikitzeko taldeko jarduerak*

- Zentro interesgarriak. Interesa duen gai bat abiaburutzat hartuta, arloak, esparruak edo diziplinak antolatuko dira.
- Proiektuen arabera ikasketa. Borondatez hasitako laneko plan bat da, errealitatean izaten diren egoerei aurre egiteko baliagarria.



- Ikerketa-proiektuak. Metodo honen abiaburua da ikasgelan, astialdiko taldean edo lan-taldean proposatutako gai bat sakon ezagutzeko beharra.

### Proiektua garatzea

#### *Elkarlaneko jarduerak*

- Elkarlanean oinarrituta, taldeka egiten den ikasketak aukera ematen du lehian eta norbanakoaren arrakastan oinarrituta dauden ikuspegi tradizionalagoetatik nekez azter zitezkeen gaitasunak sustatzeko. Laguntzarako lokarriak eratzeko, onarpena eta begirunea izateko, eta desberdintasunak ulertzeko ekarpena egiten du.

### Elkarrekiko laguntza eta pertsonen arteko harremanak

#### *Maila berekoen arteko tutoretza*

- Bikote hauetan, trebetasun jakin bat duen kideak beste lagun bati ematen dio laguntza. Oso garrantzitsua da taldeko neska-mutil guztiengan trebetasunen bat aurkitzea, hartara, pertsona bakoitzak bi paperak bete ahal izan ditzan.

#### *Pertsonen arteko harremanetan oinarritutako jarduerak*

- Aurkezpena egiteko jokoak eta jarduerak; banakako eta taldeko erantzukizuna, parte-hartzea eta araua

lantzeko jarduerak; komunikatzeko eta elkarlanean aritzeko trebetasunak lantzeko jarduerak; gatazken konponbidea aurkitzeko jarduerak; erabakiak hartzea eta emaitzak ebaluatzea.

### Sare sozialak

#### *Sarea*

- Internet mintzaira bat eta komunikatzeko bide bat da, eta aukera ematen digu informazioa emateko eta elkarren artean harremanetan jartzeko, txat, berehalako mezularitza, posta elektronikoa, foroak, banaketa-zerrendak, sare sozialak eta antzeko bideak erabiliz. Horri esker, era askotako kulturen eta arazo sozial eta pertsonalen berri izan dezakegu.

### Ospatzea

#### *Jardunaldiak, sentsibilizazioko jaiak, erakusketak eta eztabaidak*

- Ospakizun hauetan, proiektuan sartuta dauden taldeek, edota kultura edo beste esparru batzuetako elkarteek hartzen dute parte. Jaien bidez, egindako lan guztien laburpena ekitaldi batean bildu, eta proiektuaren amaiera ospatu nahi da.
- Bestetik, lana beste modu batzuetan biltzeko, argazkien eta film laburren erakusketak egin daitezke, eta, ildo horretan, ideia ona da esperientzia garatu bitartean erreportaje grafiko bat egitea.



## “#ANTIRUMOR #ANTIZURRUMURRU”-DISEINU GRAFIKOKO IKASLEAK - IES USANDIZAGA BHI. (DONOSTIA-GIPUZKOA)

Diseinu Grafikoko ikasleek “Arrazakeria eta xenofobiaren aurkako 25. martxaren” komunikazioko kanpaina prestatu dute, 56 elkarterekin elkarlanean arituta.

Bereziki nabarmentzen dira immigrazioari buruzko zurrumurruek sorrarazitako arazoaren inguruko hausnarketari esker izandako ikasketak, eta trebetasun psikosozialen garapena: sormena, norberaren eza-gutza, komunikatzeko gaitasuna, diseinuari buruzko gogoeta eta erabakiak hartzea. Ikasketa gauzatzeko, proiektu bat garatu behar da, benetako epeetan, eta hainbat elkarterekin koordinatu behar da, kanpaina aurkezteko.

Proiektua egin bitartean, ikasketen oinarria esperimentazioa da, eta prozesuetako aldien arteko harremana lantzen da, diseinuari buruzko gogoeta eginez: behatzea eta aztertzea, plana eta proiektua egitea, eraikitzea eta betearaztea. Horrez gain, taldeka lan egiteko gaitasuna eta lidergorako ahalmena indartzen dira. Nabarmendu beharreko beste alderdi bat da proiektuaren aldi emankorretako ikasketa praktikoa: erakundeekin bilerak egitea, briefing eta brainstorming-a

garatzea, sormen-prozesua, aurrekontuak lantzea eta azken ukituak.

Baterako ebaluazioa eta autoebaluazioa nabarmentzen dira ikasteko metodo gisa, eta elkarlaneko eta sareko lanaren eredia balioesten da, eredu horretan ekarpena egiteko dagoen gaitasun handia aintzat hartuta.

Hezkuntzako laguntzaz Prestakuntza Aldiko irakasleak (prozesu guztiak bateratzen saiatzen dira, eta taldearen garapenari eta gai teknikoari buruzko laguntza ematen dute) eta, era berean, hainbat erakunde arduratzen dira, hala nola, SOS Arrazakeria, taldeari informazioa eman eta harekin eztabaidan aritzen baita, etorkinei buruzko zurrumurruen ondorioei buruz.

# 6

## PROZESUKO ZEREGINAK

---

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu bateko laguntzaileek prozesuaren erantzukizuna hartzen dute beren gain, hezkuntza-taldeko gainerako kideekin eta, ziurrena, senide eta komunitateko kideekin batera.

Baliabideak eskaintzen dituzte ikasketa lantzeko, bultzada ematen diete neska-mutilei, haiek ere ekarpena egin dezaten jakintzaz edo esperientziaz ezagutzen dituzten alderdiei buruz, eta zabalik uzten dituzte ateak taldeko esperientziaz kanpoko baliabideak hartzeko.

Hiru talde handi zehaztu ditzakegu, proiektu batean taldeari laguntza ematen dion pertsonak garatu behar dituen zereginen artean.

### 1.-INFORMAZIOA EMATEA

---

Informazioa ematea aipatzen dugunean, ez dugu esan nahi laguntzailea denik egin nahi den proiektuari buruz informazio tekniko eman dezakeen bakarra. Kasu batzuetan, hori beharrezkoa da, neska-mutilen adinaren arabera; baina, nolana ere, onena zera izango litzateke: informazioa eskuratzeko modua

erraztea, neska-mutilek arakatu, ikertu eta bila dezaten zer den benetan garrantzizkoa eta baliagarria, dena delako proiektuari begira.


Bide horretan, baliabideak eman behar dira interpretazioa ikuspegi kritiko –baina ez deskalifikatzaile– batetik egiteko. Era horretan, laguntza emango dugu, taldeko kideen baitan eta beren talde-kontzientzian informazioa aztertze beharrezana piztu dadin, bai eta informazioaren egiazkotasuna, koherentzia eta egokitasuna aztertze beharrezana ere, erabakiak hartzeko prozesuari dagokionez.

### 2.-TALDEAREN ANTOLAMENDUA ERRAZTEA

---

Batzuetan, taldeak ezin dio bakarrik aurre egin antolatze zereginari, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu batek ustez dituen alderdien multzo konplexua kontuan izanda. Laguntzailearen laguntza behar du, horrek informazio gehiago baitu hainbat xehetasuni buruz, eta, gainera, esperientziaren bidez lortutako eskarmentua baitu.

Laguntza horren ondorioz, taldeko laguntzaileak ez du inola ere lan osoa bere gain hartu behar, gainerakoak alde batera utzita, antolatutako lan guztia berak egiteko. Taldea ez da laguntzaileak emandako aginduak eta jarraibideak betetzera mugatuko. Aitzitik, taldea izango da azken batean erabakiko duena,



eta bere antolakuntzako gaiak konponduko dituen; laguntzailea bertan egongo da, baina ez du taldea ordezkatzeko.

### **3.-HAUSNARKETA KRITIKOA ERRAZTEA**

---

- Proiektuaren jarraipenerako bileretan eta batzarretan

Normalean, hausnarketa kritiko hau egoera “formaletan” izaten da, hau da, proiektuaren jarraipena egiteko finkatzen diren aldizkako bileretan. Laguntzaileak aurrea har dezake, gabeziaren bat sumatu baldin badu. Kasu horretan, gaia aztertu eta eztabaidatzeko eta konponbidea bilatzeko aukera zabalik egongo da.

Era berean, normala denez, taldeko kideren batek ere egin dezake proposamena. Kasu horretan, eztabaidagaia proposatzen duenaren adierazpena bultzatu behar da, eta laguntza eman behar da esan nahi dena zehazteko eta argitzeko, auziaren muina ukitu gabe.

- Egoera zailetan

Helburu zehatzak dituen proiektu bateratu batean lan egiten duten giza talde guztietan, litekeena da egoera batzuetan arazoak edo kaosa gertatzea. Kasu horietan, prozesua berriz antolatzeko eta taldeak bere burua arautzeko eta sor litezkeen mota guztietako gatazkak konpontzeko laguntza izan dezan, komenigarria da taldea bere errealitatearen aurrean jartzea, egiten ari dena geldiaraztea, gertatzen ari denari buruzko kontzientzia hartzea eta, hala behar izanez gero, denbora uztea eztabaidatzeko.

- Egoera informaletan

Beharbada, taldeko kideren batek ahalegina egingo du laguntzaileari behar bezala ez dabilen alderdiren bat azaltzeko, eta pertsona heldu gisa gatazka konpontzen parte har dezan bultzatzeko. Hala izatekotan, laguntzaileak pertsona horri entzungo dio, eta orientabidea emango dio taldeak ezarritako bide arruntak bete ditzan (jarraipenerako bilerak). Egoera bereziki larria edo premiazkoa bada, hobe da jarduera etetea eta ezohiko bilera bat egitea.

## “GIZARTERATZEAREN ALDEKO PEDALKADAK”. ERROAK-SARTU. (DONOSTIA-GIPUZKOA)

Martuteneko espetxeko hamar presok lau hilabete baino gehiago eman dute prestakuntza-ikastaro batean parte hartzen. ERROAK-SARTU elkarteak eman du ikastaroa, eta bizikletak konpontzea eta mantentzea izan du xede. Era horretan, hamar lagun horiei prestakuntza eman nahi izan zaie, etorkizunean gizarteko arlo guztietan txertatu ahal izan daitezen eta, horrenbestez, errazago sar daitezen lanaren esparruan.

Hiriko paisaia garbitzeko eta mantentzeko lagungarriak izateaz gain, konpondutako bizikletak baliagarriak dira pobrezia-egoeretan dauden pertsonen bizibaldintzak hobetzeko.

Ikasketen artean, honako hauek nabarmentzen dira: erantzukizuna, herritarren arteko bizikidetza, elkartasuna, Munduko Osasun Erakundeak proposatzen dituen bizitzarako trebetasunen garapen praktikoa (autoezagutza, enpatia, komunikazio asertiboa, pertsonen arteko harremanak, erabakiak hartzea, arazoak konpontzea, pentsamendu sortzailea, pentsamendu kritikoa, emozioak eta sentimenduak kontrolatzea, eta tentsioa eta estresa kontrolatzea). Kapital soziala eta gaitasun sozialak eta ingurumenekoak garatzeari dagokionez, ezagutzera eman da gobernuz kanpoko

erakundeak zer diren, zein beharrizan duten, igortzen diren bizikletak jasotzen dituzten herrialdeetan zein beharrizan dagoen, banaketa nola egiten den, eta gero nola erabiltzen den kutsatzen ez duen alternatiba moduan.

Era berean, honelako esperientzia batek gizarterako erabilgarria dela erakutsi du, eta autoestimua indartzeko eta handitzeko ere baliagarria izan da: gainerako pertsonen baldintzak edo ingurune zehatz bat hobetzeko jarduerak egiten ditugunean, gure bizitzarako garrantzitsuak izango diren jakintzak eta trebetasunak ikasteaz gain, pertsona eredugarrien eta ekintzen onura zuzena hartzen duten pertsonen onarpena eta balioespena jasoko ditugu, eta hori lagungarria izango da geure buruaz dugun ustea hobetzeko eta baliozkotzat hartzeko. Horri esker, gure balioak hobera egiten du.

Hezkuntzako laguntzak oinarritzko bi alderditan izan du garrantzia: hezkuntza taldeko kideek eta Donostiako Udaleko Lankidetzak Sailak egin dituzten informazio eta teknika arloko alderdian, eta gizartean eta lan-esparruan doitzeko eta txertatzeko prozesuan emandako laguntza pertsonalean.

# 7 LAGUNTZAILEA

Orain arte ikusi dugunez, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko esperientziei ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko, hezkuntza-estilo desberdina behar da. Neurri handi batean, haur, nerabe eta gazteen laguntzaileek dituzten jarrerak eta jokaerak dira estilo horren oinarria. Egoteko modu hori eta jarrera hori lagungarria izan behar zaie, benetako protagonistak izan daitezen.

Horretarako:

## 1. Saiatu haurrak, nerabeak eta gazteak ezagutzen

- Garatu ezazu behatzeko duzun ahalmena, sumatu dituzun beharrezanean erantzuna eman ahal izateko (beharrizan horiek adierazi ez badituzte ere).
- Piztu elkarrizketan aritzeko eta laguntza emateko duten gaitasuna.
- Sustatu hausnarketa.
- Eman laguntza erabakiak hartzeko prozesuan.
- Eztabaidatu, pentsamendu kritikoa eta sormena pizteko.

## 2. Erraztu taldean txertatzeko dinamika

- Ezagutu taldeak duen dinamika eta eman laguntza taldea garatu dadin, gatazkak zehaztuz eta haiei aurre egiteko laguntza emanaz.
- Eskaini arreta zailtasunak dituzten taldeko kideei.
- Piztu motibazioa pertsonengan eta, oro har, taldean.
- Eman laguntza konponbideak aurkitzeko egiten diren eztabaidak eta debateak laburtzeko.
- Eman orientabidea taldeari, bere gain har dezan bere jokabidearen ardura.

## 3. Jakin ezazu nolako den lagunduko duzun Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektua

- Hala behar izanez gero, dinamizatu lana.
- Eman lanabesak taldean lan egiteko eta proiektuak dituen helburuak lortzeko.
- Eman laguntza, prozesuan ikasitako horri buruzko kontzientzia hartzeko.
- Egon harremanetan hezkuntza-taldeko kideekin eta senideekin.

## “BIODIBERTSITATE PROIEKTUA”. IES TOKI ALAI BHI. (IRÚN-GIPUZKOA)

Esperientzia honen bidez, Irungo udalerriko parke bat biziberritu nahi zen, alde batetik, botanika modu praktikoan ikasteko, eta, bestetik, aldameneko hiri-parke bat berreskuratzeko. Inork ez zuen sumatzen bertan 30 zuhaitz-motatik gora egongo zenik. Espezie horiek behar bezala katalogatu dira, eta informazio-oholetan haiei buruzko azalpenak eman eta parketik ibilbide bat egitea proposatu da.

Garatu diren ikasketei dagokienez, bereziki nabarmendu daitezke ingurumeneko hezkuntzarekin eta herritartasunerako hezkuntzarekin zerikusia dutenak, eta, orobat, udalerrria hobeto ezagutzea, kartelak diseinatzea eta taldeko lanari lotutako trebetasunak garatzea.

Proiektuaren bidez, era praktikoan garatu ahal izan ziren udalarekin harremanetan jartzeko eduki behar diren komunikazio-trebetasunak, zereginak garatzeko plangintza-lanak eta frustrazioari aurre egiteko modua. Bestetik, udalerriko kidea izateko ideiak hoberrantz egin zuen, eskuratutako ikasketa guztiak sendo finkatu ziren eta ingurunearekiko begirune gehiago izatea sustatu zen.

Hezkuntzako laguntza Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaitik abiatuta finkatzen da proiektu askotan. Irakasle arduradunek laguntza ematen diote taldeari, eta era askotako eskaintzak jartzen dizkiote aukeran. Laguntza ematen diete hausnarketa kritikoa egitean, proiektua hautatu, diseinatu, bete eta ebaluatu dezaten. Ahalegina egiten dute informazio egia emateko, prozesuan sortutako gatazkak konpontzeko, taldeko lana antolatzen ikasteko eta egindako proiektuaren zentzu zibikoaz jabetzeko.

## 8

### HEZKUNTZAKO LAGUNTZA ETA GAZTEEN PROTAGONISMOA

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu batean dauden oinarriko osagaietako bat parte hartzen duten pertsonen protagonismoa da.

Gazteen protagonismoaren ideari jarraiki, gazteak eskubideak eta erantzukizunak dituzten subjektuak dira, eta beren historia pertsonal eta kolektiboaz jabetzen dira. Parte-hartzeak ez dakar beti berekin protagonismoa, eta gerta daiteke protagonismoa egotea parte hartu gabe. Parte-hartzeak proposamen zehatz bat diseinatzea, betetzea eta ebaluatzea esan nahi du. Parte-hartze "eraginkor" eta "egiazko" horren ildotik, pertsonak erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartu behar dute, instituzio edo programa baten esparruan.

Hezkuntzako laguntza bateragarria al da neska-mutilen protagonismoarekin? Zein ekarpen egiten du hezkuntzako laguntzak, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu baten ezaugarriak dituen ekimen solidarioa garatzeko?

Esparru hori argi izanik, lehenik eta behin esan dezakegu hezkuntzako laguntzak aukera ematen duela proiektu jakin bat sustatu, gaitu eta errazteko.

*Hezkuntzako laguntzak laguntza ematen du (ez du behartzen, ez du derrigortzen, aukera ematen du), pertsonen eta haur, nerabe eta gazteen taldeen gaitasunak sustatzen ditu, eta etorkizunerantz proiektatzen ditu.*

Hala, bada, hezkuntzako laguntzak aukera ematen die taldeari eta bertako kideei hausnarketaren bidez alderdi hauek jorrazteko:

#### Proiektuan parte hartzen dutenen **AUTOEZAGUTZA:**

- Gai naiz errealitate desberdinetan bizi diren pertsonengana hurbiltzeko.
- Gai naiz barrea pizteko.
- Gai naiz ekimena izateko.
- Gai naiz hitz egin eta elkarrizketan aritzeko.
- Gai naiz irudimena izateko, ideiak proposatzeko, eta normalean egiten ez ditudan gauzak egiteko.



Komunitateko pertsonarik hauskorrenetikiko

### **ELKARTASUNA:**

- Gai naiz zailtasunak dituzten taldeak babesten dituzten ekimenekin bat egiteko.
- Gai naiz nire denbora, nire jakintza eta nire burua gizarte-egoera ahulagoetan dauden pertsonekin partekatzeko.
- Gai naiz gizarte-arriskuko egoeran dauden pertsonen eta elkarteen arazoak zeintzuk diren jakiteko, ulertzeko eta partekatzeko.
- Gai naiz talde bat eratzeko, proiektu solidario bat eraikitzeko.
- Gai naiz justizia sozialaren alde modu zehatzean eta praktikoan aurre egiteko

Zerbitzu solidarioa hartzen duten pertsona eta elkarteekiko **ENPATIA:**

“Ibil zaitetz pixka batean nire zapatekin” (Txinako esaera zaharra).

- Gai naiz beste pertsonarekin batera sentitzeko.
- Gai naiz besteen erantzunak, emozioak eta iritziak hobeto ulertzeko, eta desberdintasunak gainditzeko.
- Gai naiz beste pertsona baten larruan jartzeko, eta bere baitatik ulertzen saiatzeko.
- Gai naiz jarduteko eta hari laguntza emateko

### **EKITEN IKASTEIA.**

Lagunduz gero, protagonismoa utzi eta honen alde egingo dugu:

- Sormena, ekimena, etorkizun-sena, konpromisoa, esparruen aniztasuna, berrikuntza, helburuak finkatuta aritzea, lidergoa, konbentzitzeko ahalmena.
- Gizartea eraldatzeko gaitasuna, motibazio soziala, iraunkortasuna, arriskuak nork bere gain hartzeko eta arazoak konpontzeko gaitasuna, autonomia eta ekimen pertsonala, nork bere buruarekiko konfiantza izatea, baikortasuna, planifikatzeko gaitasuna, etab.

### **IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOAREN PLUSA**

Hezkuntzako laguntzari esker, harremanean jar daitezke planifikatutako ekintza eta curriculumeko ereduak. Horrez gain, lagungarria da lanbide-arloko orientaziorako, eta jendetasuna eta hiritartasuna pizten ditu, hala oraingoa nola etorkizunekoak.

### IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOARI BURUZKO LIBURUAK

Cathryn Berger Kaye, M.A. (2004). *The complete Guide to Service Learning*. Minneapolis. EUA.

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei (2010). *¡Practica APS! Guía práctica de aprendizaje-servicio para jóvenes*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Martín, X. eta Rubio, L. (2010). *Prácticas de ciudadanía. Diez experiencias de aprendizaje Servicio*.artzelona. Octaedro.

Puig, J. M. (2009). *Aprendizaje y servicio. Educación y compromiso cívico*.artzelona. Grao.

Puig, J. M.; Batlle, R.; Bosch, C. eta Palos, J. (2007). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*.artzelona. Octaedro.

Tapia, M. N. (2006). *Aprendizaje y servicio solidario*. Buenos Aires. Ciudad Nueva.

### HEZKUNTZAKO LAGUNTZA

Franch, J. (1972). *L'autogestió a l'escola*. Novaterra.artzelona.

Franch, J. eta Martinell, A. (1986). *La animación de grupos*. Editorial Laia.artzelona

Fundación SES (2008). *Servicio Juvenil Integral*. Bilbo. EDEX.

Herrera, G. eta Chahín Pinzón, I.D. (2007). *La Fiesta de la conversación*. EDEX. Bilbao.

Matilla Castellanos, J. y Chahín Pinzón, I.D. (2006) Habilidades para la vida. Manual para aprenderlas y enseñarlas. Bilbo. EDEX.

Mendia, R. eta Flores, R. (2003) *Aprendiendo a convivir*. Bilbo. EDEX.

Rogers, Carl. (1987). *El camino del ser*. Kairós.artzelona.

Askoren artean. (2003) Comunidades de Aprendizaje en Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Askoren artean. (2000-2009) Elkar-teentzako gidak: Proiektuak; Batzarrak; Taldeak; Elkar-teentzako sareak; Elkar-teentzako komunikazioa; Elkar-teentzako liderrak. EDEX-Fundación ESPLAI. Bilbo

### ZERBIKAS GIDAK

Rubio, L. (2008). *Zerbikasen 0 Gida: Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren sakelako gida*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Puig, J. M.; Martín X. (2007). *Zerbikasen 1. Gida: Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Hernández, C.; Larrauri, J.; Mendia, R. (2009). *Zerbikasen 2. Gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarrizko gaitasunak garatzea*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Mendia, R.; Moreno, V. (2010). *Zerbikasen 3. Gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa, gizarteratzeko estrategia*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Mendia, R. (2011). *Zerbikasen 4. Gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: ekiten ikastea, erkidegoa zerbitzatzen*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

Mendia, R. (2012). *Zerbikasen 5. Gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa, ikasketako proiektu integratua*. Bilbo. Zerbikas Fundazioa.

### WEB ORRIAK

Boluntariotza.net. Boluntariotzaren web orria: [www.boluntariotza.net](http://www.boluntariotza.net) (Euskal Herria)

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei: [www.aprenentatgeservei.org](http://www.aprenentatgeservei.org) (Katalunia)

CLAYSS (Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko Zentro Latinoamerikarra): [www.clayss.org](http://www.clayss.org) (Argentina)

EDUTEKA. Gabriel Piedrahita Uribe Fundazioaren (FGPU) doako Hezkuntza Ataria: [www.eduteka.org](http://www.eduteka.org) (Kolonbia)

Escoles Compromeses amb el Món: [www.escolescompromeses.org](http://www.escolescompromeses.org)

Global Changemakers: [www.global-changemakers.net](http://www.global-changemakers.net)

In Our Global Village: [inourvillage.whatkidscando.org/global\\_village\\_project.html](http://inourvillage.whatkidscando.org/global_village_project.html)

Learn and Serve America's: [www.servicelearning.org](http://www.servicelearning.org) (AEB)

National Youth Leadership Council: [www.nylc.org](http://www.nylc.org) (AEB)

Red Española de Aprendizaje-Servicio: [www.aprendizajeservicio.net](http://www.aprendizajeservicio.net)

Youth Action Net: [www.youthactionnet.org](http://www.youthactionnet.org)

Youth Venture: [www.genv.net](http://www.genv.net)

Zerbikas: [www.zerbikas.es](http://www.zerbikas.es) (Euskal Herria)



BILBAO • Calle Indautxu, 9 bajo

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN • Paseo Bizkaia, 15-16 bajo

VITORIA-GASTEIZ • Portal del Rey, 20 bajo

© De la presente edición: **Zerbikas Fundazioa**

ISBN: 978-84-9726-725-0

Todos los derechos reservados

1ª edición: 2013

Diseño: Álvaro Pérez Benavente / [www.estudionuvola.es](http://www.estudionuvola.es)


Con el apoyo de:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



fundazioa  
**zerbikas**

ikasketa eta zerbitzu solidarioa  
aprendizaje y servicio solidario

